

NE ③

AUTO LILA

Mispillibar

Auto lila

Opor hondarrean, etxera bidean naiz. Autoz. Gari-sail ordeka horian irristatuz noa kaiolatxo ibiltarian, norgehiagoka ero batean bezala, nor bizkorrago. Zitzu bizian gurutzatzen eta aurreratzen naute. Nik neuk ez dut presarik. Helmuga urruti dudalako, hain zuzen. "Ezak galdu patxadarik". Presatia ez da beti helmugan lehena. Lasaitasuna ez da sekula presaren ordaina, eta bidaiariak ibiliaz gozatzen duena behar du izan.

Aurrea hartu nahi diot asperdurari. Nekadurari ere. Tarquinian geratzea erabaki dut. Etruskoen hilobi famatuak bisitatuko ditut. "Oroitzapen eta hausnarketa gaien depositua beteko diat errepideko bakardade ordu luzeetarako". Ezin izan dut, baina, hilobirik bisitatu, astelehena izaki, eta astelehenetan itxita daude Italian museo eta erakustoki publikoak. Uste baino lehenago nago berriro errepideko zurrunbiloan.

Berehala irentsi nau auto-uholdeak. Anonimoa naiz anonimoen artean. Ezezagunez bildutako ezezaguna. Eskuineko bideari lotu natzaio, ezkerreko bide presatiari muzin eginez. Opel lila bat daramat aurrean. Ez du, nik bezala, aparteko presarik. Nire abiadura berdintsuan doa. Kolorea egin zait

deigarri, lila ez baita auto-kolore ohikoa. Bide luzea egin dut berari jarraiki. Auto bera beti aurrean izatea aspergarria bilakatu zaidan arte. "Lasaiago joanen haiz aurretik, hemen gibelean berak zer egingo kezkaz baino". Azeleragailua sakatu eta aurreratu dut auto lila, ilaran lehena izan arte egin dut aurrera, orduan errenditu naiz eskuineko ilarara, nire ohiko abiadurara.

Ederra dakusat Mediterranea. Grosseto hiria iragartzen digute, parean du Elba uhartea; "ni errepidean kotxe arteko abiaduran bezain bakarti sentitu ote huen Napoleon itsasoz inguratutako presondegi geldian" galdetzen diot nire buruari. Luze, era berean arin, doaz kilometroak. Nire herriko harizti eta pagadiak ditut gogoan, beraietan laster egingen ditudan txangoek deitzen naute goxoki etxera, nire herriaren monoa dut.

Ahaztuta nuen opel lilak aurreratu nau, han aurreko kotxe ilaran gorde eta galduz. "Aspertu duk hau ere". Autoa garbia daukala erreparatu diot, alboan lehenengo, aurretxoan gero, izan dudanean. Ez darama ezer atzeko apalean, ez du zintzilikariorik haizetakoan, austeroa baina aldi berean txukuna eta aratza da. Azaleko zerbait soilik da dotoretasuna askorentzat, baina apaindura garestiz ez da zarpail jitea

galtzen. Barne dotorezian dago gakoa, eta halako dotorezia ukitua duela deritzot aurrera egin didan delako kotxe lilak.

Berritze lanak autobidean. Auto urduriek bildu naute. Idatzi gabeko errepideko barne legeak ezartzen du sarritan unean-uneke abiadura. Egokiagoa deritzot ezkerreko bidetik bizkorrago egitea. Aurreratzeari ekin diot. Auto lila da aurreratu dudanetako bat. Ikusmin ttantta batek zirikatu nau ikusi dudanean. "Zein ote gidaria?". Alboan nintzela zeharrrreti, aldi berean arretaz, begiratu diot. Lipar bat besterik ez. Emakumea da, neska heldua, bidaiari bakarra autoan.

Irudimenean itsatsita geratu zaizkit nola kotxe lila hala bere gidaria. Klin-klon, errotako glakadak antzo, jotzen naute galderek kaskezurrean. Harro ote bere emakumezkoan, feminista agian, askea, lila kolorea du atsegin besterik gabe?, autoari antz eman dakioken barne dotoreziarik ote?, lanetik, lanera, lanean, asteburu pasa Erroman?, bilera batetik etxera,... ?. Gogoetok ehoz noa. "Zer axola dik kotxe lilak?". Burua okupatuta daramat behinik behin, asperdurarako tarterik gabe.

Bukatu dira konponketa lanak, lasaitu da errepidea. Itzuli naiz nire abiadura eta iladara. Bernardo Atxagaren behi makalak han hemenka larrean eguneroko konformidadean, errepideko abiadura lehiei ardura handirik hartu gabe. Ebakita dago jadanik garia, gari ipurdi zorrotz sailak besterik ez dira galsoro hori kulunkariak izandakoak. Auto lila zait oldozpenen legamia. "Non ote" ez tentxoia dut ziztaka barrenean.

Presarik gabeko ilaran noa, aurrekoari tarte luzea utziz. Kilometro batzuk ondoren, hara non dakusan kotxe lila, gibelean dut, gertu, niri jarraiki. Neskatoa ezagutu nahi dut, ahalegintzen naiz atzerako ispiluan: tirantedun soinekoak agiriak uzten dizkio besaburuak eta besoak, soineko argiak ilunagoa bihurtzen dio azal belztua, eguzki kolorekoa du hilea; begiak ikusi nahi nizkioke, ilunak ala argiak dituen. "Zertan ari haiz inozoa?".

Hala egin ditugu kilometro mordoska, ez dakit jabetu den ikuskizun eta jakin-min bilakatu zaidala. Halako batean ñir-ñir jartzen du ezkerreko argitxoa, eta abiadura bizkortuz aitzinerantz abiatzen da. Ikusi nahi dut bere aurpegia, begiratzen diot, berak, baina, ez du niganantz begiratzen. Soslai ikusi ahal dut soilik. "Polita duk". Brist egiten dio

hileak, ebaki gabeko galsoroa irudi. Aurrea hartu dit eta han aurrean galdu zait. Bakardadeak egin dik kosk barneko tolesduraren batetan.

Herrixkak agertzen zaizkit, herrixka zapalak, zapalduak ere agian, umilak, ahaztuak, nire abiaduraren heinean etorri eta doazkidanak. Kerik gabeko adreiluzko tximinia luzeak tarteka, porrotaren lekuko besterik ez. Turismo-gune bihurtuko dira beharbada herriok, turismoa baita porrot egin duen ekonomiaren edo bururik altxa ezin duen herri pobre askoren esperantza. Baina indar gutxi aurkitzen dute burutapenok nire arduretan. Beste zerbait dabil geldiezin garunetako bihurgunetan. "Ezakela galdu bere arrastorik!". Auto lila eta gidari ilehoria ditut orain udaberriko tximeleta hegalaria gogoan.

Agian berak abiadura mantsotu duelako, agian bidaia kidea noiz ikusiko liluraz nik neuk abiadura bizitu dudalako, aurretxoan dut kilometro luzeetako lagun lila. Bere ilaran sartu naiz, atzean jarri natzaio. Berarengandik hur, bere atzerako ispiluan aurpegia ikusiko ote diodan. Alferrik. Atzeratu naiz zentzuzko tartea utzi arte, baina beste inori tartean sartzeko aukerarik eman gabe. Argi motelak piztu ditut. Argitxo gorriak piztu zaizkio bereari. Sortu dugu

harremana. Badugu lotura. "Presentzia kontzientea duk bion artekoa".

Joanaldia egin dugu elkarrekin. Beste inolako komunikaziorik gabe elkarren ondoan luzatzeak ez duela zentzurik iritzi diodan arte. Harremana areagotu nahi dut. Abiadura bizkortu eta aurrera egiten dut. Parean dut: begiratu diot eta begiratu dit, irribarrea luzatu diot, irritxo batekin erantzun dit. Berak abiadura moteldu egiten duela iruditzen zait. Aurrean uzten didan tartera sar nadin nahi ote du?. "Geratu hadi berarekin!". Bera motel, ni arinago, atzean gelditu zait, aurrera egin dut, baina faroak piztuta ditu berak ere.

Eskuineko bidean gorde naiz berriro. Urduri. Kili-kili bat nabari dut barne zoko gordeen batean. Ez dut presarik. Atzean dut nire pentsamenduko ilehoriaren kotxe lila. Autobidean joan motelean doanari gertatu ohi zaionez, bi kamiozarren erdian aurkitu naiz. Atzekoak ernegu puntua sortarazten dit. Ezin baitut atzetik nor datorren ikusi ahal. Eta nik atzean datorren kotxe lila dut amets. Ziztu bizian aurreratzen naute. Adi ditut begiak, gosez, nire kotxe lila ote den horietakoren bat. "Atrapa hau". Aurreratzen dut kamioia, baztertzen naiz tarte huts batera, motelago doan kotxe bat

aurreratzen dut, nekazaria dirudien gizon heldu bat geratzen zait aurrean antigoaleko 4L zaharraren abiadura geldoan, aurreratzen dut hau ere. Behatoki bihurtu zait autoa eta ni neu zelatari, kotxe lilaren gose begiak.

Lasaia da bidaia, baina ni neu ez noa jadanik lasai. Opel lilak ziztatzen dit gogoa, erleak lora bezala, ibilia eztituz. Irteeraren batetan alde egin ote didan kezka kizkurtzen dit bihotza. Nostalgiaz bilatzen dut atzerako ispiluan. Halako batetan ikusten dut han atzean kamioia aurreratzen, nire ilaran gorde zait, ondoren kotxe bat aurreratzen ikusi dut. Bera da, ez da errepidetik atera. Zorionez. Pasa eta pasatzen utzizko jokoan dator, nekazariaren autoa ere aurreratu du. Hurreratzen ari zait, abiadura bizkorra dakar. Koketo neu ere, nitaz jabetuko ote den lilurak argitu dit barrena. Erraz pasatu nau. Parean izan dudanean begiratu diot, baina berak ez dit begiratu. Minduta sentitu dut nire auto-estimua. Aurrean galdu zait. Motatxo lila bat besterik ez da lasterrera. "Joan zaidak". Ez naiz ausartu jarraitzen. Nostalgia geruza batek epeltzen dit barrena eta tristatzen eguerdia.

Asko ugaltzen da autoa zein kamioi txikia herri inguruetan. Herritik herrirako kotxe txikiak dira gehienetan. Motel ia

beti. Baina orain ez da besteen abiadura motela nire urduritasunaren zergatia, ezta kamioien kartola zabalak ere. Auto lilaren bila noa etsi-etsian. Abiadura bizkortu, ezkerreko bidea hartu, eta aurreratzeari ekin diot. Brist eginaz geratzen zaizkit atzean arraia zuriak. Ilara mordoska aurreratzen dut. Auto lila begiz jo dudan arte. "Hemen diat". Ez dut mantsotzen abiadura, aurrera egiten dut bere parean jarri arte, baina, lotsati, oraingoan neu ez naiz ausartzen berengana burua jiratzen. Aurrera egin dut, ez oso urrutira, bere ilaran sartu naiz, txoria gauerako zuhaitz orbeltsuan babesten den bezala. Begi-bistan utzi dut, ilehoria ikusteko gogoak irrikitzen nau, baina hainbat kotxe sartu zaizkigu tartean, ez dut ikusten.

Letrero handia agertu da Livorno hiria iragarritz. Bikoiztu egiten da autobia, bi bidetan banatzen hurrengo bidegurutzean. Batek Livornoraino egiten du, besteak Genoara eta Frantziara garamatza. Kamioi geldoa daramat aurrean baina ez dut aurreratzen. Eten gabe aurreratzen naute autoek. Lasai dago errepidea, baina ni neu ez nago lasai, ez baitut atzean nire kotxe lilarik ikusten. "Hemen diat" pozten zaizkit halako batean begiak. Abian dator, eskumakook baino bizkorrago, ezkerreko bidetik. Auto lila bihurtu zait ikusgai eta ikuskizun. Tarteka eskuineko ilaran sartzen da. Azkarrago

datorren batek aurreratzen du. Ondoren berak egiten du aurrera, eskumako tarte batetan sartu eta bide ematen atzean datorkionari, ondoren berak beste bat aurreratzeko. Kukuka bailebil. Gidari trebea da nire ilehoria! Abiadura mantsotzen dut, bihotz taupadak bizkortzen zaizkit. Gertu dut kotxe lila. Nire ondoren jarri zait. Baretu naiz. Ez naiz bakarrik sentitzen, bertan dut berriro ehunka kilometrotako laguna. Elkarrekin goaz, ni aurretik, bera atzetik. Une batez begiratzen diot atzerako ispiluan berak ere ikusiko nauen itxaropenez. Eskua altxatzen diot, berak ere altxatzen dit berea. "Lagunak gaituk". Lagun deklaratuak.

Sarriak bilakatu dira Livornoko bidegurutzea iragarrizko letreroak. Nora ote doa. Bidegurutzerako kilometro bakarra besterik falta ez delarik eskumarako argi keinukaria pizten diot. Argi luzeak bota dizkit berak, brist-brist, bizpahiru aldiz. Segidan, bere autoko ezkerreko argi ñir-ñirra pizten du eta abiadura bizkortuz aurreratzen hasten zait. Bidegurutzean gaude ia, Livornorako bidea hartu behar du. Bere atzetik edo etxera, borrokan ari dira bi sentipenak nire baitan. "Geratuko nauk?". Nire bideari jarraitzea erabakitzen dut, bidaia berri bati atea itxiz. Mira berezia sentiarazi dit auto lilako ilehoriak. Atzerria omen bidaiariaren aberria

hala dio idazle batek, baina nik herria dut jadanik amets.
Herrimin naiz eta herrirako erabakia hartu dut.

Parean dudanean bozina jotzen diot, berak ere jotzen dit,
aurrean jartzen zaidanean argiarekin bristadak botatzen
dizkiot, eskua altxatzen dit agurtuz, nik nirea ateratzen
diot leihatilatik eta eskuinera hartuz etxerako bidea
jarraitzen dut. "Agur". Bata bestearen atzetik edo aurretik
ibili gara, lehian ez, konpainia elkarri eginaz baizik, 300
kilometrotik gorako joanean. Polita izan da hitzik gabeko
lagunartekoa, bidea arinduz elkarri.

Livornoko bidegurutzetik aurrera, nostalgiaren eraginez edo,
musika jarri eta ni neu hasi naiz zintarekin batera abesten.
Ez dut zinta berririk jarri. Ia ahaztuta nituen eta auskalo
noiztik abesten ez nituen kantak abestuz egin ditut ondorengo
kilometro luzeak. Ez dut ilehoriaren konpainia fisikoa, baina
nirekin daramat bere oroimena. Nire joana arintzen jarraitzen
du. Ez ditut itzali argiak, piztuta diraute eguzki argiko
arratsalde osoan, bidaia-lagunaren oroimenez, agian
bihozminez. Pako Aristiren poemak ehotzen dizkit azken
sentipenak bihotzean: "... edertasun hura ikusezina zait orain
/ egun arrunten geografian. / ... / baina minutu haren lilura
baino ez da etortzen / nire oroimenaren espexera".